



**FORU LEGEAREN AURREPROIEKTUA, JUSTIZIA ERRESTAURATIBOARI,
BITARTEKARITZARI ETA JARDUNBIDE ERRESTAURATIBO KOMUNITARIOEI BURUZKOA**

1. Atariko titulua. Xedapen orokorrak
2. I. titulua: Justizia errestauratiboa zigor-arloan.
3. II. titulua: Bitartekaritza arlo zibilean eta merkataritza-,
administrazio- eta lan-arloan.
4. III. titulua: Auzitegiz kanpoko jardunbide errestauratibo
komunitarioak.
5. IV. titulua: Antolaketa administratiboa Nafarroako Foru
Komunitatean.

ATARIKO TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honek xede du gatazkak modu baketsuan konpon daitezen sustatzea, eta horretarako, justizia errestauratiboa, bitartekaritza eta jardunbide errestauratibo komunitarioak arautzea Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean.

2. artikulua. Foru legearen helburuak.

1. Hona hemen foru lege honen helburuak:
 - a. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, justizia errestauratiboarekin, bitartekaritzarekin eta jardunbide errestauratibo komunitarioekin lotuta, eskaintzen dituen zerbitzuak eta programak arautzea, Estatuko legedi indardunarekin bat.
 - b. Zerbitzu eta programa horien kalitatea Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoan homogenea dela bermatzeko beharrezko neurriak hartzea, horien desberdintasunen arabera.
 - c. Justizia errestauratiboa, bitartekaritza eta jardunbide errestauratibo komunitarioak sustatzeko politiken helburuak finkatzea.



3. artikulua. Prozesuak gidatzen dituzten printzipioak.

Foru lege honetan araututako prozesuak honako printzipio gidari hauei jarraikiz garatuko dira:

a) Borondatezkotasuna. Parte hartzen dutenek askatasun osoa dute prozesu hauek hautatzeko, bai eta edozein unetan atzera egiteko ere. Era berean, bideratzaileak ere beren borondatez arituko dira, eta hartutako lanari uko egiten ahalko diote, legedian ezarritakoarekin bat.

b) Berdintasuna. Parte-hartzaileek berdintasunez jardunen dute, eta prozesuaren arduradunak haien arteko oreka bermatzen dela zaindu beharko du, arreta berezia eskainiz gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari.

c) Konfidentzialtasuna. Konfidentzialak izanen dira bai prozesuak, bai horiek iraun bitartean ahoz edo agiri bidez lortutako informazio guztia, salbu eta parte-hartzaileek betebeharrak hori betetzetik salbuesten badute edo legezko xedapenen batek hala xedatzen badu.

d) Inpartzialtasuna eta neutraltasuna. Prozesuaren arduradunak ezin izanen du gaian interesik izan, eta legeetan ezarritako abstentzio- eta errekusazio-printzipio orokorrei jarraituko zaie.

e) Fede ona eta elkarrenganako errespetua. Parte-hartzaileek eta prozesuaren arduradunak fede onaren eta elkarrenganako errespetuaren betebeharren arabera jardunen dute.

f) Malgutasuna. Parte-hartzaileek eta prozesuaren arduradunak egoki irizten dioten moduan antolatzen ahalko dituzte prozesuak, kasuaren ezaugarriak eta beharrak kontuan hartuta, betiere legedian ezarritako funtsezko printzipioak betez.

4. artikulua. Kalitatea.

1. Nafarroako Gobernuak zainduko du justizia errestauratiboaren zerbitzuek, bitartekaritzak eta jardunbide errestauratiboek kalitate-estandarrak betetzen dituztela, kasuen izaerarako eta gatazken ezaugarrietarako egokiak izanen direnak, eta zeharka sartzen dela genero-ikuspegia.



2. Ildo horretatik, justiziaren arloan eskumena duen departamentua arduratuko da, inplikaturik dauden instituzio eta erakundeen parte-hartzearekin, bi urteko kalitate plan bat egiteaz. Plan horretan, beharrezkoak diren laguntza-, prestakuntza- eta ikuskapen-neurriak jasoko dira.
3. Orobat, ahalmena ematen zaio justiziaren eskumena duen departamentuari erregelamendu bidez funtzionamendu protokoloak eta kode deontologikoak ezartzeko. Protokolo eta kode horiek prozesuen izaeraren arabera egokituko dira, eta inplikaturik dauden instituzioen parte-hartzearekin egiten dira.

5. artikulua. Irisgarritasun unibertsala.

1. Foru lege honetan araututako prozesuek irisgarritasun unibertsala bermatu beharko dute dibertsitate funtzionala edo desgaitasun fisikoa edo intelektuala duten pertsonentzat. Horretarako, honako hauek bermatu beharko dira: prozesuak garatzen diren inguruneen irisgarritasuna, zeinuen hizkuntzaren eta ahozko komunikazioari laguntzeko bitartekoen erabilera, braille sistemarena, ukimenezko komunikazioarena edo beste edozein sistemarena, dibertsitate funtzionala edo desgaitasuna dutenek prozeduran berdintasunez parte hartzen dutela ziurtatzeko.
2. Ildo horretan, prozesuetan egoten ahalko dira, halaber, pertsona horien laguntza-premia berariazkoak erantzuten dieten eta saioetan komunikazioa ahalbidetzen duten pertsonak, zeinak lotuko baitzaizkie foru lege honen funtsezko printzipioei, bereziki konfidentziasunaren printzipioari.

6. artikulua. Lurralde-ekitatea

1. Nafarroako Gobernuak bermatu beharko du justizia errestituzioaren zerbitzuak eta programak, bitartekaritza eta jardunbide errestituzioak berdintasunez eskuratzen direla Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoan.
2. Zerbitzu eta programa horiek pertsonengandik ahalik eta hurbilen eman beharko dira, kontuan harturik haien izaera eta ezaugarriak.

7. artikulua. Ekitate soziala

1. Nafarroako Gobernuak sustatuko du bereziki kalteberak diren pertsonak edo kolektiboak -inguruabar pertsonalak, familiarrak, sozialak edo juridikoak tarteko- prozesu horietan sartzea, eta arreta pertsonalizatua eskainiko die dauzkaten behar horiek ezagutzeko eta horiei erantzuteko.



2. Hori horrela, behar diren laguntzak gaituko dira prozesu horietara sartzea eragozten duten oztopo praktikoak gainditzeko.

8. artikulua. Haurren babesa.

1. Adingabeek parte hartzen badute, legezko tutoreen baimenarekin eginen dute, eta, judizializatutako kasuetan, kontuan hartuko dira haien babesa eta prozedura judizialeko parte-hartzea arautzen dituzten legezko bermeak.

2. 16 urtetik gorakoek tutoreen baimenik gabe parte hartzen ahalko dute prozesuetan, baina legediak adin horretakoentzat eskuragarri jartzen dituen ondasun edo eskubideen gaineko akordioak baino ezin izanen dira egin.

9. artikulua. Genero-ikuspegia

1. Foru lege honetan araututako zerbitzuek, programek eta prozesuek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipio konstituzionalaren eraginkortasuna bermatuko dute, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean ezarritako moduan.
2. Horiek horrela, 4.2 artikuluan ezarritako kalitate planak berariaz jaso beharko du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidearen printzipioa.

10. artikulua. Ofizialtasuna

Auzitegi barruko prozesuak legeetan xedatutako arauen eta bermeen arabera arautzen dira, justiziaren zerbitzu publikoaren zati diren aldetik.

11. artikulua. Abokatuen laguntza

1. Auzitegi barruko prozesuetan, parte-hartzaileek abokatu profesionalen edo haiek izendatutako beste profesional batzuen laguntza izaten ahalko dute, eta horiek prozesu horiek arautzen dituzten legeetan eta foru lege honetan ezarritako funtsezko printzipioei lotuko zaizkie.
2. Abokatuen laguntza bermatuko da hala eskatzen duten prozesu guztietan, bat etorritz doako laguntza juridikorako eskubideari buruzko foru legedian ezarritakoarekin.



12. artikulua. Baliabide elektronikoak

1. Aplikatzekoa den legediarekin bat, sustatuko da eztabaidak konpontzeko bitarteko egoki horien jarduketak telematikoki gauzatzea.
2. Eskubide hori gauzatu ahal izateko, Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren tresnak jarri beharko ditu herritarren eta profesionalen eskura.
3. Parte-hartzaileek erabakitzen ahalko dute jarduketa guztiak edo batzuk bitarteko telematikoen bidez, bideokonferentziaren bidez edo ahotsa edo irudia transmititzeko antzeko bitartekoren baten bidez egitea, baldin eta esku hartzen dutenen identitatea eta foru lege honetan ezarritako funtsezko printzipioekiko errespetua bermatzen badira.
4. Erregelamendu bidez ezartzen ahalko da ezen prozedura jakin batzuk, garrantzi gutxikoak direlako edo haien zenbatekoa mugatua, ahal dela bitarteko telematikoen bidez garatuko direla, eta, hala badagokio, eten digitala gainditzeko neurriak ezarriko dira.
5. Justizia errestauratiboaren esparruan, gaiak batez ere pertsonalak direnez, aurrez aurreko parte-hartzea lehenetsiko da, salbu arrazoizko eta behar bezala arrazoitutako salbuespenetan, zeinak erregelamendu bidez edo jarduteko protokoloetan arautuko baitira.

13. artikulua. Justizia errestauratiboa, bitartekaritza eta jardunbide errestauratibo komunitarioak sustatzeko politiken helburuak.

Hona hemen justizia errestauratiboa, bitartekaritza eta jardunbide errestauratibo komunitarioak sustatzeko politiken helburu nagusiak:

- a) Herritar guztiek justizia errestauratiboa, bitartekaritza eta eztabaidak konpontzeko beste bitarteko egoki batzuk berdintasunez eskuratzeko aukera izanen dutela bermatzea, justiziaren zerbitzu publikoaren zati diren aldetik.
- b) Prozesu horien kalitatea eta efizientzia sustatzea, gatazken kudeaketan esku-hartzearen printzipio deontologikoak errespetatzen direla zainduz.
- c) Esparru komunitarioko gatazkek prebenitzea, eta halakorik gertatzen denean, horiek modu baketsuan eta elkarrizketa bidez konpontzen direla bultzatzea, gatazka soziala desjudizializatzeko.



d) Delituen biktimei eta horiek gertatu diren komunitateei eragindako kaltea erreparatzea.

e) Delituak egin dituztenen erantzukizuna eta gizarteratzea sustatzea, haien gizarte-baldintzatzailleak gainditzen lagunduz.

f) Gizarte-kohesioan laguntzea, konfiantza-, errespetu- eta zaintza-baldintza kolektiboak sortuz, halako moduz non sor daitezkeen gatazkak komunitateak berak kudeatzen ahal dituen hasierako faseetan.

2. Helburu hauek lortzeko ekintza zehatzak lau urteko plan estrategiko batean bilduko dira. Plan horren xedea justizia errestauratiboa, bitartekaritza eta jardunbide errestauratiboak sustatzea izanen da, eta justiziaren arloan eskumenak dituen departamentuak egingen du, inplikaturako eragileen parte-hartzearekin.



I. TITULUA. JUSTIZIA ERRESTAURATIBOA ZIGOR-ARLOAN

I. kapitulua. Printzipio orokorrak.

14. artikulua. Kontzeptua.

1. Justizia errestauratiboa zigor-arloko justiziari laguntza espezializatua emateko zerbitzu publiko bat da, eta honako helburu hauek ditu: eragindako kaltearen erreparazioa, ofentsagileen erantzukizuna eta gizarteratzea, eta kaltetutako pertsonen eta komunitateen parte-hartzea.
2. Ildo horretan, honako hauek hartzen dira justizia errestauratiboaren zerbitzu, programa eta prozesutzat: aukera ematen dutenak delitu baten kaltea jasan duten pertsonak eta komunitateak eta kalte horren erantzuleak -horretarako baimena ematen badute askatasunez- aktiboki parte har dezaten delituak izandako ondorioak konpontzen, hirugarren pertsona independente eta kualifikatu baten laguntzarekin, baldin eta prozesu horren xedea bada biktimei eta komunitateei eragindako kaltea erreparatzea eta kaltea eragin duten pertsonak erantzukizuna bere gain hartzea eta gizarteratzea.

15. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Justizia errestauratiboaren zerbitzuak, programak eta prozesuak zigor-arloko jurisdikzioari dagozkio, eta haren bermeen mende daude.
2. Nafarroako justizia errestauratiboaren zerbitzu publikoak bere gain hartuko ditu organo judizial eskudunak bideratzen dizkion kasuak, zigor-arloko prozesuaren edozein fasetan, edozein tipologia eta larritasun duten delituetan, berariaz debekatuak daudenak izan ezik, indarrean dagoen legedia prozesal eta substantiboaren arabera.
3. Erantzukizun penala iraungitzen bada edo egiaztatzen ez bada, prozesu errestauratiboak antolatzen ahalko dira biktimek erreparazio moral egokia jasotzeko duten eskubidea bermatzeko. Justiziaren arloan eskumenak dituen departamentuak baimendu beharko ditu prozesu horiek; ez dute zigor-xederik izanen, eta berme osoz errespetatuko dituzte abstentzioaren, konkurrentziaren eta ebazpen judizialekiko loturaren eginbehar eta betebeharrak.
4. Hala badagokio, beste jurisdikzio batzuekin koordinatzeko beharrezkoak diren mekanismoak ezarriko dira, zehazki, Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege



Organikoan ezarritako adiskidetze- edo erreparazio-prozesuekin, baldin eta adinez nagusiak eta txikiak diren biktimgileak badaude.

16. artikulua. Justizia errestitatiboaren printzipioak

Nafarroako Gobernuak finantzaturako justizia errestitatiboaren zerbitzuek, programek eta prozesuek printzipio hauek beteko dituzte, foru lege honen 4. artikuluan eta Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legean ezarritakoez gain:

- a) Parte-hartzea: ukitutako pertsonen eta komunitateen parte-hartze aktibo eta zuzena erraztu behar da.
- b) Erreparazioa: pertsoneri, komunitateeri eta, oro har, gizarteari eragindako kalteari aurre egin behar zaio, eta hura erreparatzen saiatu.
- c) Erantzukizuna: kaltea eragin dutenek hura erreparatzeko erantzukizun aktiboa bere gain har dezaten sustatu behar da.
- d) Gizarteratzea: prozesuek arau-hausleen gizarteratzea sustatu behar dute, arreta jarriz jokabide kaltegarri eta bidegabeen oinarrian dauden faktore pertsonal eta sozialei. Prozesua ez amaitzeak ez die ondorio prozesalik edo zigor-arlokorik ekarriko parte-hartzaileei.
- e) Biktimen babesa: prozesuek biktimen segurtasuna bermatu behar dute, biktimizazio sekundarioa saihestuz, prozesuen garapenean arriskurik egon ez dadin kalte material edo moral berriak eragiteko.
- f) Ekitatea: inplikaturako alderdien eskubideak eta premiak errespetatzen dituzten prozesuak aplikatu behar dira, menderakuntza edo botere-desoreka saihestuz, arreta berezia jarriz gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari.
- g) Ikuspegi soziala eta komunitarioa: prozesuen xedea izanen da bakearen kultura bultzatzea ukitutako komunitatean eta, oro har, gizartean, eta behar diren baldintzak sustatzea jokabide kaltegarriak errepika ez daitezen.

17. artikulua. Justizia errestitatiboaren zerbitzuak eskuratzeko eskubidea.

1. Justizia errestitatiboa eskubide subjektiboa da Nafarroako Foru Komunitatean, foru lege honetan ezarritakoaren arabera.
2. Nafarroan delituren bat jasan duten guztiek eskubidea dute justizia errestitatiboaren zerbitzuak eskuratzeko eskaera



egiteko. Justizia errestauratiboaren zerbitzuak eskuratzeko ez da baldintza izanen alde aurretik salaketa bat aurkeztea.

3. Nafarroako Foru Komunitateko organo judizialek ikertutako, auzipetutako eta zigortutako pertsonak ere eskubidea dute justizia errestauratiboaren zerbitzuak eskatzeko.

18. artikulua. Zerbitzu publikoaren bermea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko du justizia errestauratiboaren zerbitzuak eta programak doakoak eta publikoak izatea, foru lege honetan zehaztutako moduan.
2. Justiziaren arloan eskumena duen departamentuak bermatuko du prozesu errestauratiboaren kalitatea eta horiek zerbitzu publikotzat hartzea.
3. Zerbitzu, programa eta prozesu errestauratiboak zuzenean ematen ahalko dira, edo, bestela, zeharka, erakunde publiko edo pribatuekin elkarlanean, hitzarmen edo kontratuen bidez, edo zerbitzu publikoak zeharka emateko legez aurreikusten den beste edozein moduren bidez.

19. artikulua. Kalitatearen bermea.

1. Justizia errestauratiboaren zerbitzuek kalitatea ebaluatzeko sistema bat izanen dute, gogobetetasun inkesten bidez edo beste metodologia egoki batzuen bidez. Zerbitzuen ikuskapena eta kanpo ebaluazioak egiten ahalko dira, 4.2 artikuluko bi urteko kalitate planean ezartzen denaren arabera.
2. Justizia errestauratiboaren zerbitzuek datuak erregistratzeko sistema egokiak izanen dituzte, aztertzen dituzten kasuei buruzko informazioa bildu ahal izateko, betiere datuak babesteko araudia errespetatuz. Gutxienez, aplikatu den justizia errestauratiboaren teknika erregistratuko da, baita kasu batzuetan aurrera ez egiteko arrazoiak ere.
3. Datu anonimoak edo anonimo bihurtutakoak ondasun komuntzat hartuko dira, eta gizartearen eskura jarriko dira, politika publikoen ikerketa eta ebaluazioa errazteko, interes orokorraren mesedetan.

20. artikulua. Justizia errestauratiboaren prozesuetan bideratzaile aritzeko baldintzak.

1. Justizia errestauratiboaren prozesuetan bideratzaile aritu ahal izateko, Gai Zibil eta Merkataritzakoetako Bitartekaritzari buruzko



uztailaren 6ko 5/2012 Legean jasotako prestakuntza eta baldintzak bete beharko dira gutxienez, prozesu bakoitzaren izaerari lotutako egokitzapenak aintzat hartuz.

2. Nafarroako Gobernuak finantzatzen dituen justizia errestauratiboaren taldeetako kideen prestakuntza eta baldintzak arautzeko, beren kontratuetan, hitzarmenetan eta protokoloetan xedatutakoari jarraikiko zaio, foru lege honetan eta Estatuko legedian jasotako printzipio gidariekin bat.

Ildo horretan, justizia errestauratiboaren bideratzaileen taldeek, hots, justiziaren eskumenak dituen departamentuak finantzatutakoek, justizia errestauratiboari buruzko prestakuntza espezializatua jasoko dute, zeinak gaitasun eta trebetasun maila handia emanen dien gatazkei ikuspegi errestauratibotik aurre egiteko. Horrez gain, honako hauen gaineko ezagutza eskuratuko dute: biktimekin, ofentsagileekin eta pertsona kalteberekin lan egin ahal izateko berariazko baldintzak, zigor-arloko sistema judiziala, eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza.

3. Justizia errestauratiboaren bideratzaileen taldeek esperientzia eta prestakuntza aurreratua izan behar dute justizia errestauratiboa kasu delikatuetan, konplexuetan edo larrietan aplikatu aurretik.

21. artikulua. Beste zerbitzu eta erakunde batzuekin koordinatzea

1. Justizia errestauratiboaren zerbitzuak justiziaren eskumena duen departamentuko Biktimen Arretarako Bulegoarekin koordinatuko dira, zerbitzu bakoitzaren autonomia funtzionalari eutsiz.

2. Kasuaren ezaugarrien arabera, beste zerbitzu eta erakunde batzuekin koordinatzen ahalko dira, besteak beste honako arlo hauetan aritzen direnekin: zigor-arloko betearazpena, eskubide sozialak, migrazio politikak, adikzioen tratamendua eta osasun mentalaren arreta.

II. kapitulua. Funtzionamendu-printzipioak.

22. artikulua. Justizia errestauratiboaren zerbitzuari buruz informatzea eta hartara bideratzea

1. Delituaren Biktimaren Estatutuan ezarritakoarekin bat, biktimari justizia errestauratiboaren zerbitzuen berri emanen zaio agintari eskudunekin lehen aldiz harremanetan jartzen



denean.

2. 17. artikuluan zerrendatutako pertsonen justizia errestauratiboaren zerbitzura bideratzea eskatzen ahalko dute. Orobat, zerbitzu horretara bideratzeko eskaerak egiten ahalko dituzte Biktimei Laguntzeko Bulegoak, Zigor Betearazpeneko Atalak edo gertaeren berri duen beste edozein zerbitzu publikok.

3. Bideratzeko eskaera horiek organo judizial eskudunari jakinaraziko zaizkio, ofizialki bidera ditzan.

23. artikulua. Arazo prozesalak.

1. Legedian xedatutakoarekin bat, justizia errestauratiboaren zerbitzuek organo judizialak bideratutako kasuei erantzunen diete, horiek edozein fasetan eta zigor-arloko prozeduratan daudela ere, barnean direla delitu arinengatiko prozedura, aurretiazko eginbideak, sumarioa edo betearazpena, besteak beste.

2. Bideratzeko eta ebazteko mekanismo sinplifikatuak ezartzen ahalko dira delitu arinetarako, larritasun txikiagoaren arabera. Ildo horretan, dagokion ofiziozko txanda espezializatua ezartzen ahalko da, lanbide-elkargoekin lankidetzan.

24. artikulua. Justizia errestauratiboa zigor-arloko betearazpenetan.

Betearazpen fasean, justizia errestauratiboaren zerbitzuek judizialki bideratutako kasuak jasotzen ahalko dituzte, zigorraren betearazpena etetea baloratzeko, zigorraren baldintzak ezartzeko, komunitatearentzako lanen programaren edo jardueraren edukia finkatzeko edo legeetan aurreikusitako beste ondorio juridiko batzuetarako.

25. artikulua. Justizia errestauratiboa espetxe-betearazpenean.

Espetxe zigorra bete bitartean, justizia errestauratiboaren zerbitzuek espetxe-zaintzako epaitegitik edo epaia eman duen epaitegi edo auzitegitik bideratutako kasuak jasotzen ahalko dituzte, giltzaperatuak, biktimak edo espetxeko edo gizarteratzeko zentroko tratamendu batzordeak hala eskatuta.

26. artikulua. Justizia errestauratiboaren teknikak.



1. Justizia errestauratiboa aplikatzen ahalko da foru lege honetan jasotako definizioa eta printzipioak errespetatzen dituen edozein teknika edo metodologiaren bidez.
2. Hona hemen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eskaintzen dituen teknika errestauratiboak: zigor-arloko bitartekaritza, konferentzia errestauratiboak, zirkulu errestauratiboak eta lantegi eta programa errestauratiboak.

27. artikulua. Zigor-arloko bitartekaritza.

1. Zigor-arloko bitartekaritza prozesu errestauratibo bat da, zeinean biktima batek edo batzuek eta biktimagileek elkarrizketa batean parte hartzen duten, bideratzaile batek edo batzuek lagunduta, delituaren ondorioak konpontzeko xedearekin.
2. Bitartekaritza prozesuak zeharka egiten ahal dira, alderdiak aurrez aurre komunikatu gabe.

28. artikulua. Konferentzia errestauratiboak

1. Konferentzia errestauratiboa izeneko prozesu errestauratiboan, biktimizez eta biktimagileez gain, haien laguntzaileek ere parte hartzen dute, bideratzaile baten edo batzuen laguntzarekin.
2. Konferentzia errestauratiboek horretarako egiten diren protokoloetan ezarritako jarduteko jarraibideak beteko dituzte.

29. artikulua. Zirkulu errestauratiboak.

1. Zirkulu errestauratiboa izeneko prozesu errestauratiboan, biktimizez, biktimagileez eta haien laguntzaileez gain, delituak ukitutako komunitateko kideek ere parte hartzen dute, bideratzaile baten edo batzuen laguntzarekin.
2. Zirkulu errestauratiboek jarduteko jarraibide protokolizatuak beteko dituzte, eta inplikaturako pertsonen adostasuna lortzea izanen dute helburu.
3. Zirkulu errestauratiboak akordio zabalekin amai daitezke, zeinetan komunitateko kideen eta erakundeen parte-hartzea eta laguntza sartuko baita.

30. artikulua. Lantegi eta programa errestauratiboak.



Aurreko metodologiez gain, lantegi eta programa errestauratiboak ere ezartzen ahalko dira, hala nola espetxeko elkarrizketa errestauratiboak eta laguntza- eta gizarteratze-zirkuluak, besteak beste.

31. artikulua. Emaitza errestauratiboak

1. Emaitza errestauratiboak izan daitezke ukitutako pertsonen arteko akordioak, erreparazio komunitariorako akordioak edo gizarteratzeko konpromisoak, eta erreparazio plan batean jaso beharko dira.

2. Akordioetan jasotzen diren jarduketak bidezkoak, bideragarriak eta proportzionalak izanen dira, eta alderdi guztiek ados daudela adierazi beharko dute askatasunez eta informatuak izan ondoren.

3. Erreparazio nahikotzat jo daiteke, alderdiek hala adosten badute, hitz egiteko topaketaren edukiaren garapena, itzulketa, erreparazioa, kalte-ordaina, zerbitzuak ematea, boluntario-lana egitea, tratamendua jasotzea, barkamena eskatzea, egitateak aitortzea eta alderdiek egokitzen jotzen dituzten beste batzuk.

4. Ahal den neurrian, akordioak alderdien ideietan oinarritu behar dira. Bideratzaileek alderdien akordioetan esku hartuko dute soil-soilik haiek hala eskatzen badiete, edo akordioen alderdi batzuk oso errealistak ez badira edo argi eta garbi neurrigabeak edo bidegabeak badira; kasu horretan, bideratzaileek esku hartzeko arrazoiak azaldu eta erregistratu beharko dituzte.

5. Prozesu orok amaierako txosten bat izan beharko du, Fiskaltzari eta organo judizialei bidaliko zaiena; horrek ez du galaraziko prozesuaren egoerari buruzko tarteko informazioa eskatu ahal izatea, prozesuaren epeak betetzen direla bermatzeko.

6. Delitu arinen kasuan, justizia errestauratiboaren prozesuetan, organo judizialek aintzat hartzen ahalko dute, beren irizpidearen arabera, igorritako txosten hori, legeetan xedatutako egokitasun-printzipioa aplikatu ahal izateko. Beste prozedura batzuen ondorio positiboak organo judizialek ezartzen dituzten ondorioak izanen ditu, eta akordioa baloratzen ahalko da kaltea erreparatzeko aringarri bat edo kasu zehatzari aplikatu dakizkioken beste batzuk ezartzeko.

32. artikulua. Jarraipena

1. Justizia errestauratiboaren zerbitzuek akordioak betetzen direla begiratuko dute, eta horren berri emanen diote organo



judizialari.

2. Erreparazioaren egikaritze materiala ahozko judizioko ekitaldia baino lehen hasi beharko da. Ondare-edukia duten akordioen kasuan, biktimari eman beharreko kalte-ordaina ahozko judizioa egin aurretik ordainduko da oso-osorik, ahal den guztietan, eta epaia betearazteko geratzen ahalko da zati bat ordaintzeko geratzen bada eta erreparazio-ahalegina baloratzen bada, edo, bestela, denboran geroratutako edo hainbat epetan atzeratutako erreparazio ekonomikoa adosten bada, baldin eta alderdiak ados badaude eta legez posible bada.

3. Organo judizialak baloratuko du justizia errestauratiboaren zerbitzuei jakinarazten dien prozesu bakoitzari amaiera emanen dion ebazpena, haren kopia emanez, prozesuaren azken emaitzari buruzko informazio hobe eta eraginkorragoa eduki ahal izateko.



II. TITULUA: BITARTEKARITZA ARLO ZIBILEAN ETA MERKATARITZA-, ADMINISTRAZIO- ETA LAN-ARLOAN.

I. KAPITULUA. Printzipio orokorrak

33. artikulua. Kontzeptua

1. Bitartekaritza eztabaidak konpontzeko bitarteko egoki bat da. Horren bidez, gatazka bateko alderdiak, beren borondatez eta fedeez, akordio on bat lortzen saiatzen dira, bitartekari profesional baten edo batzuen laguntzarekin.

2. Alderdiak libre dira eztabaidak legeetan jasotako edozein bide erabiliz konpontzeko, horietan aurreikusitako ondorio prozesalekin.

34. artikulua. Aplikazio-eremua

1. Foru Komunitatearen eremuko bitartekaritza zibila eta merkataritza arlokoa arautuko da Gai Zibil eta Merkataritzakoetako Bitartekaritzari buruzko uztailaren 6ko 5/2012 Legearen eta foru lege honen arabera.

2. Foru Komunitatearen eremuko administrazioarekiko auzien jurisdikzioko bitartekaritza, berriz, Estatuko legedian eta foru lege honetan xedatutakoaren arabera arautuko da.

3. Foru Komunitatearen eremuko lan-arloko bitartekaritza Estatuko legedian eta foru lege honetan xedatutakoak arautuko du.

35. artikulua. Bitartekaritza eskuratzeko bermea

1. Nafarroako Gobernuak bermatuko du auzitegi barruko bitartekaritza eskuratzeko delata, Doako Justiziaren Erregelamenduan ezarritako moduan.

2. Nafarroako Gobernuak bermatuko du organo jurisdikzionalen eta herritarren eskura jarriko delata bitartekaritzari buruzko informazioa, prozesu judizialaren alternatiba gisa.

36. artikulua. Bitartekaritza sustatzea.



1. Nafarroako Gobernuak honako hauen bidez sustatuko du bitartekaritza eta eztabaidak konpontzeko beste bitarteko egoki batzuk garatzea: doako laguntza juridikoa, hitzarmenak, dirulaguntzak, eta eragile juridikoentzako eta gizartearentzako prestakuntza eta dibulgazioa.

2. Bitartekariei dagokienez, justiziaren arloan eskumenak dituen departamentuak, bitartekaritza erakundeekin lankidetzan, hasierako eta etengabeko prestakuntza egokia sustatu eta eskatuko du, bai eta kode deontologikoak egitea eta bitartekariak eta bitartekaritza erakundeak kode horietara atxikitzea ere.

37. artikulua. Nafarroan bitartekaritza-lana egiteko baldintzak

1. Bitartekaritza lanbide pribatua da, eta askatasunez gauzatzen da, bat etorritz Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 6. artikuluan eta Espainiako Konstituzioaren 35. eta 36. artikuluetan xedatutakoarekin.

2. Arlo zibilean eta merkataritzakoan, bitartekaritzak ondorio juridiko lotesleak izan ditzen, Estatuko araudiari jarraikiz gauzatu behar da, eta edozein profesional kualifikatuk eskaintzen ahalko du, baldin eta betetzen baditu Gai Zibil eta Merkataritzakoetako Bitartekaritzari buruzko uztailaren 6ko 5/2012 Legean eta hura garatzeko erregelamenduan ezarritako baldintzak.

3. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan eta lan-arloko jurisdikzioan, haien arau espezifikoetan xedatutakoa beteko da, eta, halakorik ezean, aipatutako uztailaren 6ko 5/2012 Legean, Gai Zibil eta Merkataritzakoetako Bitartekaritzari buruzkoan, eta hura garatzeko erregelamenduan jasotako betekizunak aplikatuko dira.

4. Ondorio juridiko loteslerik bilatzen ez duen auzitegiz kanpoko bitartekaritza gauzatuko da alderdiek ezartzen dituzten kontratu, hitzarmen eta jokabide-kodeetan jasotako betekizunen arabera, eta zehatz beteko dira foru lege honetan eta Estatuko legedian jasotako printzipio gidariak.

5. Nafarroako Gobernuak finantzatutako bitartekaritza arautuko da haren kontratuetan, hitzarmenetan eta protokoloetan xedatutakoaren arabera, eta horiek osatuko dituzte foru lege honetan eta Estatuko legedian jasotako printzipio gidariak.

38. artikulua. Kalitatearen bermea.



Justiziaren arloan eskumenak dituen departamentuak bermatuko du Nafarroako Gobernuak finantzatutako bitartekaritzaren kalitatea, eta horretarako, zerbitzu hori ematen duten bitartekaritza erakundeak ikuskatuko ditu.

39. artikulua. Bitartekaritza erakundeak.

1. Nafarroako Gobernuak zainduko du bitartekaritza erakundeek, beren jarduerak garatzean, errespetatzen dituztela bitartekaritzaren printzipioak, hots, Estatuko legedian eta foru lege honetan ezarritakoak, bai eta bitartekarien jardun ona ere, haien arauak ezartzen duten moduan.

2. Ildo horretatik, Nafarroako Bitartekaritza Erakundearen Erregistroa ezarriko da. Erregistroa borondatezkoa izanen da, eta informazioa ematea izanen du helburu. Justiziaren arloan eskumenak dituen departamentuak kudeatuko du.

3. Erregistratutako bitartekaritza erakundeek Bitartekaritzako Kalitate Zigilua eskuratzen ahalko dute, ezartzen diren jokabide-kodeekiko atxikimendua bermatzeko.

40. artikulua. Lanbide-elkargoak.

1. Nafarroako Gobernuak sustatuko du lanbide-elkargoak arlo horretan aritzea, kontuan hartuta bitartekaritzaren garapenean duten garrantzi berezia, esperientzia eta ospe aitortua.

2. Ildo horretan, laguntza emanen zaie bitartekaritza erakunde gisa onartuak izatea eskatzen duten eta baldintzak betetzen dituzten lanbide-elkargoak, izaera hori aitortzeko.

II. kapitulua. Funtzionamendu-printzipioak.

41. artikulua. Prozedura.

Bitartekaritza gauzatuko da prozedura malgu baten bidez, alderdien beharretara egokituz, haiek erabakitzen duten moduan, eta errespetatuz foru lege honen eta Gai Zibil eta Merkataritzakoetako Bitartekaritzari buruzko uztailaren 6ko 5/2012 Legearen printzipio gidariak.



42. artikulua. Baterako bitartekaritza

1. Nafarroako Gobernuak finantzatutako bitartekaritza prozesuetan, diziplina desberdinetako profesionalen arteko baterako bitartekaritza lehenetsiko da, hori gomendatzen duten arrazoi teknikoak daudenean, ezaugarri familiar, psikologiko eta sozial garrantzitsuei erantzuteko.

2. Kasu horietan, batera koordinatzeko eta prestatzeko sistemak ezarriko dira inplikaturako profesionalen artean.

43. artikulua. Bitartekaritza arlo zibilean eta merkataritza arloan.

1. Arlo horietako bitartekaritza aurreko kapituluan aurreikusitako moduan garatu beharko da, indarrean dauden prozedura-legeetan eta lege substantiboetan jasotako ondorioak izateko. Zehazki, honako hauetan xedatutakoa errespetatu beharko da:

a) 1/1973 Legea, martxoaren lekoa, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa onesten duena, 36.5 Legea, 67.d) Legea, 69. Legea in fine, 70. Legea, 103. Legea, 345. Legea.

b) 5/2012 Legea, uztailaren 6koa, Gai Zibil eta Merkataritzakoetako Bitartekaritzari buruzkoa.

44. artikulua. Bitartekaritza administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

1. Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak bultzatuko ditu bitartekaritza prozesuak sartzeko administrazioarekiko auzien prozeduretan, bai eta bere eskumeneko administrazio-prozeduretan ere, itundutako amaiera gisa eta gora jotzeko errekursoaren ordezkotresna gisa, bat etorritik administrazio-prozedura erkideari buruzko legedian aurreikusitakoarekin.

2. Era berean, lankidetzak-hitzarmenak egiten ahalko dira tokierakundeekin, Nafarroako Administrazio Auzitegiarekin eta Nafarroako Arartekoarekin, beren eskumenen esparruan bitartekaritza sustatzeko.

45. artikulua. Lan-arloko bitartekaritza.



1. Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak bultzatuko ditu bere eskumeneoak diren lan prozeduretan bitartekaritza prozesuak sartzeko, dagoen lan-arloko legediarekin bat.

2. Halaber, lankidetzeta-hitzarmenak egiten ahalko dira sindikatuekin, enpresa-erakundeekin eta Nafarroako Lan Auzitegiarekin, bitartekaritza sustatzeko beren eskumenen esparruan.

46. artikulua. Bitartekaritzaren emaitzak

1. Bitartekaritzaren akordioa azken akta batean jasoko da, eta legeetan ezarritako ondorio juridikoak izanen ditu.

2. Azken akta horrek prozeduraren amaiera zehaztuko du, eta, hala badagokio, argi eta garbi adieraziko ditu lortutako akordioak, edo prozedura beste edozein arrazoirengatik amaitu dela.

3. Alderdi guztiek eta bitartekariak sinatu beharko dute akta, eta jatorrizko ale bana emanen zaio bakoitzari.



III. TITULUA: AUZITEGIZ KANPOKO JARDUNBIDE ERRESTAURATIBO KOMUNITARIOAK.

47. artikulua. Definizioa

Jardunbide errestauratibo komunitarioak gatazkak prebenitzeko eta judizializatu gabeko gatazkak konpontzeko tresnak dira, bai eta gizarte-kohesioa sustatzekoak ere, helburu dutenak konfiantzazko, errespetuzko eta zaintzako baldintza kolektiboak sortzea, sor daitezkeen gatazkak komunitateak berak kudea ditzan hasierako faseetan eta modu espontaneoan.

48. artikulua. Aplikazio-eremua

Jardunbide errestauratibo komunitarioak prozedura judizialek kanpo garatzen dira, eta ez dute ondorio juridiko loteslerik izan nahi.

49. artikulua. Printzipioak.

Atariko Tituluan bildutako printzipioez gain, jardunbide errestauratibo komunitarioek honako printzipio hauek betetzen dituzte:

a) Herritarren parte-hartzea: herritarren parte-hartze solidarioa sustatuko da boluntariotzaren formulen bidez, bideratzaile profesionalen parte-hartzea baztertu gabe.

b) Gatazka sozialak prebenitzea eta konpontzea: prozesuen helburua izanen da gatazka sozial zabal eta generikoak prebenitzea eta konpontzea, baita ikuspegi desberdinak eztabaidatzea ere premia sozialei aurre egiteko modu onenari buruz.

c) Gizarte-kohesioa handitzea: prozesuen helburua izanen da erantzukizun partekatuaren ideia eta komunitate zibikoko kide izatearena indartzea, aniztasunari eta kulturartekotasunari ikuspegi positibotik begiratuta.

50. artikulua. Jardunbide errestauratibo komunitarioak sustatzea.



1. Justiziaren arloan eskumenak dituen departamentuak prozesu errestauratibo komunitarioak eskainiko dituen sare bat sortzea sustatuko du, horretarako ezarritako dirulaguntzen deialdi baten bidez, bai eta gizarte-ekimeneko erakundeekin lankidetzan aritzeko beste tresna batzuen bidez ere.

2. Arreta berezia eskainiko zaio lurralde-ekitateari, eta gatazkak konpontzeko gune komunitarioak ezarriko dira landa-eremuetan.

3. Justiziaren arloan eskumenak dituen departamentuak Nafarroako Sare Errestauratiboa sortuko du, non jardunbide errestauratiboak eskaintzen dituzten erakundeek aukera izanen duten parte hartu eta beren esperientziak partekatzeko eta elkarrengandik ikasteko.

51. artikulua. Jardunbide errestauratiboetan boluntarioak areagotzeko neurriak.

Boluntariotza sustatzeko, komunitateko agente errestauratiboaren figura sortuko da eta hitzarmenak adostuko dira dauden boluntariotzako entitateekin, Nafarroako Boluntariotzari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legeak ezartzen duenaren arabera.

52. artikulua. Jardunbide errestauratiboetako prestakuntza sustatzeko neurriak.

Herritarrei oro har, esku-hartze sozialeko profesionalei eta beste diziplina batzuetako profesionalei zuzendutako jardunbide errestauratiboetarako buruzko ikastaro espezifikoak egitea sustatuko da.

53. artikulua. Jardunbide errestauratiboaren teknikak

1. Aurreko definizioarekin eta printzipioekin bat datorren edozein tresna erabiltzen ahalko da.

2. Honako hauek sustatuko dira Nafarroako Foru Komunitatean:

a) Borondatezko sare komunitarioak bitartekaritza- eta entzute-lanetarako.

b) Auzitegiz kanpoko familia bitartekaritza, auzo-bitartekaritza, kultura arteko bitartekaritza, eskola bitartekaritza, laneko bitartekaritza eta antolakundeetako, osasun bitartekaritza, kontsumo bitartekaritza eta espetxe bitartekaritza.



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
Departamento de Políticas
Migratorias y Justicia
Migrazio Politiketako eta
Justiziako Departamentua

**Servicio de Ejecución Penal
y Justicia Restaurativa**
**Zigor Betearazpeneko eta
Justizia Errestauratiboko Zerbitzua**
Monasterio de Iratxe, 22-bajo
Iratxeko monasterioa, 22-behea
31011 PAMPLONA / IRUÑA

- c) Gatazkak konpontzeko gune komunitarioek pertsona talde handiek parte hartzeko moduko teknikak erabiltzen ahalko dituzte, hala nola elkarrizketa-zirkuluak, foro irekiak edo ezartzen diren beste batzuk.
- d) Erakunde, programa edo baliabide bat ikuspegi errestauratibora egokitzea, hura osatzen dutenen artean konfiantza, errespetua eta kohesioa sortuz.



IV. TITULUA: ANTOLAKETA ADMINISTRATIBOA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN.

54. artikulua. Nafarroako Gobernuaren jarduna

1. Nafarroako Gobernuak, justiziaren arloan eskumenak dituen departamentuaren bitartez, eginkizun hauek izanen ditu:

a) Justizia errestauratiboaren zerbitzuak, auzitegi barruko bitartekaritza eta jardunbide errestauratibo komunitarioak bultzatzea, antolatzea eta gainbegiratzea.

b) Beharrezko neurriak hartzea bermatzeko justizia errestauratiboa, bitartekaritza eta jardunbide errestauratiboak modu homogeenan eskuratzen direla Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoan.

c) Nafarroako justizia errestauratiboa, bitartekaritza eta jardunbide errestauratiboak sustatzeko lau urteko plan estrategikoa onestea, eta Nafarroako Parlamentura bidaltzea, hark bere iritzia eman dezan.

d) Justizia errestauratiboaren, bitartekaritzaren eta jardunbide errestauratiboen bi urteko kalitate plana onestea.

e) Departamentuen arteko koordinazio orokorrerako eta zeharkako koordinaziorako irizpideak eta formulak ezartzea, hala egitea beharrezkoa denean.

f) Bitartekaritza Erakundearen Erregistroa kudeatzea eta etengabe eguneratzen dela gainbegiratzea.

g) Bitartekaritzako Kalitate Zigilua ematea, erregelamendu bidez ezartzen diren betekizunen arabera.

h) Justizia errestauratiboaren zerbitzuen, bitartekaritzaren eta jardunbide errestauratiboen jardueren gaineko datuak biltzea, helburu estatistikoekin, eta emaitzak argitaratzea.

i) Arlo horietan jardunbide egokien protokoloak egin daitezen sustatzea, eta horietan diharduten pertsonak eta erakundeak protokolo horiei atxikitzea sustatzea.

j) Justizia errestauratiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestauratiboari buruzko zabalpen- eta prestakuntza-programak bultzatu eta garatzea, profesionaleri eta boluntarioeri zuzenduta.



k) Justizia errestauratiboaren, bitartekaritzaren eta jardunbide errestauratiboen arloko ikerketa eta azterketa sustatzea.

l) Arlo horietan ezagutzak, esperientziak eta berrikuntzak truka daitezen sustatzea, eta etengabeko prestakuntzarako eta prestakuntza espezializaturako ikastaroak, jardunaldiak edo mintegiak sustatu eta antolatzea.

55. artikulua. Jarduketan koordinazioa

1. Justiziaren arloan eskumenak dituen departamentuak jarduerak koordinatuko ditu erakunde garrantzitsuekin Nafarroako Justizia Kontseiluaren lantalde hauen bidez:

- Justizia Errestauratiboaren Batzordea.
- Bitartekaritza Batzordea.
- Jardunbide Errestauratiboen Batzordea.

2. Departamentu horrek beste departamentu, zerbitzu edo plan batzuekin koordinatzeko mekanismoak ezarriko ditu, baldin eta horien jarduerak lotura badute justizia errestauratiboaren, bitartekaritzaren eta jardunbide errestauratiboen printzipio eta helburuekin.

56. artikulua. Toki administrazioen jarduna.

1. Toki-erakundeek honako jarduera hauek egiten ahalko dituzte:

a) Sustatzea justizia errestauratiboaren, bitartekaritzaren eta jardunbide errestauratiboen erabilera eta horien garapena justiziaren arloan eskumenak dituen departamentuarekin koordinatuta. Ildo horretan, beren eskumenen barnean eta harekin koordinatuta, foru lege honetan ezarritako funtsezko printzipioekin bat datozen jarduerak eta zerbitzuak ezartzen ahalko dituzte.

b) Arlo honetako ezagutzen, esperientzien eta berrikuntzen trukea sustatzea.

2. Toki-erakundeek beren mendeko bitartekaritza-zerbitzu edo -programak jakinaraziko dizkiote justiziaren arloan eskumenak dituen departamentuari.

57. artikulua. Nafarroako Bitartekaritza Erakundearen Erregistroan inskribatutako bitartekaritza erakundearen jarduna



Hona hemen Nafarroako Bitartekaritza Erakundeen Erregistroan inskribatutako bitartekaritza erakundeen eginkizunak:

a) Erakundeko bitartekaria izendatzea, eta izendapen horretan gardentasuna bermatzea.

b) Beren esparruan diharduten bitartekarien nortasuna ezagutaraztea, eta horiek bitartekaritzaren arloan duten prestakuntza, espezialitatea eta esperientzia jakinaraztea.

c) Bitartekariei dagokienez, deontologia- eta diziplina-eginkizuna betetzea, eta legeek, protokoloek eta kode deontologikoez ezartzen dizkieten betebeharrak errespetatzen dituztela zaintzea.

d) Bitartekaritzaren erabilera sustatzea eta zabaltzea, eta erabiltzaileei doako informazioa ematea bitartekaritzaren ezaugarriei, printzipioei eta abantailei buruz.

e) Saioak, jardunaldiak edo prestakuntza-ikastaroak antolatzea bitartekarientzat.

f) Justiziaren arloan eskumenak dituen departamentuari igortzea bitartekaritza-jarduerei buruzko kekek edo salaketak, bai eta jarritako diziplina-zehapenak ere.

g) Justiziaren arloan eskumenak dituen departamentuak eskatzen dion informazio guztia bidaltzea, helburu estatistikoetarako, betiere konfidentziasun-betebeharra eta datu pertsonalak babesteko araudia errespetatuz.

h) Erakundeak bitartekaritzaren arloan egiten dituen jardueren urteko memoria egitea, justiziaren arloan eskumena duen departamentura bidaltzeko.

i) Bitartekaritza espedienteak kontserbatzea eta zaintzea.

Lehen xedapen gehigarria. Erregelamendu bidezko garapenerako gaikuntza.

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege honetan xedatutakoa garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Gehienez ere urtebeteko epean, honako hauek arautu beharko dira:



- Nafarroako Bitartekaritza Erakundearen Erregistroa sortzea.
- Inskribatutako bitartekaritza erakundeentzako kalitate-zigilua lortzeko baldintzak.

Bigarren xedapen gehigarria. Plan estrategikoa eta kalitate plana.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik urtebeteko epean, justiziaren arloan eskumenak dituen departamentuak justizia errestauratiboa, bitartekaritza eta jardunbide errestauratiboak sustatzeko lehen plan estrategikoa onetsi beharko du, bai eta foru lege honetan ezarritako kalitate plana ere.

Plan horiek egiteko beharrezkoak diren lantaldeak eratuko ditu, Nafarroako Justizia Kontseiluaren esparruan.

Hirugarren xedapen gehigarria. Dirulaguntzen deialdia.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik urtebeteko epean, justiziaren arloan eskumenak dituen departamentuak dirulaguntzak emateko deialdi baten oinarriak onetsiko ditu, gizarte-kohesiorako jardunbide errestauratiboak sustatzeko, bai eta komunitateko agente errestauratibo izateko eta Nafarroako Sare Errestauratiboko kide izateko baldintzak ere.